SGAE Fundazioak eta Sitges Fundazioak sariketa honetarako deialdia egiten dute, genero fantastikoaren arloan emakumeen ikus-entzunezko edukiak bultzatzeko, helburua izanik arlo horretan diharduten egileen lanaren kalitatea aitortzea eta sustapen-esparruak bultzatzea:



Josefina Molina

II SARIA

FILM LUZE FANTASTIKOETARAKO EMAKUMEEN EGILETZA DUTEN GIDOIENA

Josefina Molina zinemagilearen omenez jarri zaio izena sariketari, aurrendaria bera emakumeen zinema fantastikoaren arloan honako film honekin: Vera, un cuento cruel *(1973).*

OINARRIAK

01 Lehiaketara aurkeztu ahalko dira SGAEko kide diren **emakumezko egile guztiak, afiliazioa esklusibitatean dutenak, edozein nazionalitatekoak izanik ere**. Egile bat baino gehiagoren lankidetzatik sortutako gidoia bada, parte hartu duten egile guztiek SGAEko kideak izan beharko dute, salbuespenik gabe. Egile bat baino gehiago dituzten obrak onartzekotan, egile guztiek emakumeak izan beharko dute. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira SGAEko Zuzendaritza Batzordeko kideak eta SGAEko Jarraipen Batzordeko kideak, baita SGAE Fundazioko Patronatuko kideak ere.

02 Aurkeztutako gidoiek **genero fantastikokoak izan beharko dute, bere zabalean hartuta** (beldurrezkoak, zientzia-fikziozkoak, fantasia purua...), eta **Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzita** egon beharko dute. Gidoi originalak izan beharko dute, inoiz argitaratu gabeak, eta fikziozko film luzeetarako direnak. Hortaz, ez da onartuko egilearen beraren edo beste egile batzuen lanen egokitzapenik. Aurkeztutako obra ezin da egon filmatuta, eta ezingo da eman ikus-entzunezko enpresa bati, sariketara aurkezten den momentutik eta epaimahaiak erabaki arte. Era berean, lehiaketatik kanpo gelditukо dira II. Josefina Molina Sarira aurkeztu aurretik sarituriko gidoi guztiak, edo sarira aurkeztu eta erabakia jaso artean sarituriko gidoiak.

03 Ez dira onartuko sinopsiak, tratamenduak eta bukatu gabeko gidoiak. Originalak aurkezteko, zinematografiaren arloko ohiko formatuetakoren bat erabiliko da, eta Espainian ohikoak diren filmazioetara egokitutako metrajea izango du. Aurkezpen profesional onargarririk ez duten obrak deskalifikatu egin daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

04 Lehiakideak **posta elektronikoz** aurkeztuko dira lehiaketara, mezuak atxikian dituela obraren eta behar diren agirien fitxategiak. Egileen anonimotasuna gordetzeko, soilik izenburua agertuko du obraren testuaren fitxategiak, eta lelo gisa jokatuko du kasu honetan; horrez gain, testuan inon ez da agertuko egilearen identitatearen gaineko erreferentziarik.

Lehiaketan parte hartzeko, agiri hauek aurkeztu behar dira (PDF formatuan):

- Lehiaketara aurkeztutako testuaren fitxategia, egilea identifika dezakeen ezaugarririk gabe. Lehiaketara aurkeztu den lana gaztelania ez den Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialetako batean badago, **egileak edo egileek gaztelaniazko itzulpena aurkeztu dezakete**, lanaren jatorrizko hizkuntza ezagutzen ez duten epaimahaikideek erabil dezaten. Egileak edo egileek gaztelaniazko itzulpenik aurkezten ez badute, SGAE Fundazioak itzulpena egiteko baimena izango du, epaimahaikideek lan-tresna bezala erabil dezaten. Itzulpenok suntsitu egingo dira sariaren epaia eman eta gero.

- Plikarena egiten duen fitxategia, honako izen honekin: "Plika – [obraren izenburua]". Fitxategi horretan digitalizatuta agertu behar dutenak: gidoia Jabetza Intelektualaren Erregistroan erregistratu izanaren ziurtagiria (behin-behinekoa edo behin betikoa); lehiakidearen edo lehiakideen NANaren edo pasaportearen fotokopia; oinarri hauei erantsita dagoen izen-emateko fitxa, atal guztiak beteta; lehiakidearen edo lehiakideen curriculum vitae laburra.

Agiri horietakoren bat falta bada, lehiakidea deskalifikatuta gelditukо da.

05 Agiri guztiak helbide elektroniko honetara igorri behar dira: iarmada@fundacionsgae.org, **2026ko ekainaren 2tik 2026ko uztailaren 6ko 12:00**ak arte (biak barne), honako esaldi hau ipinita mezuaren gaian: "II Josefina Molina Saria, Film Luze Fantastikoetarako Emakumeen Egiletza Duten Gidoiena - Lehiaketarako obra".

06 Zinemaren arloko egile eta profesionalek osatuko dute sariaren epaimahaia (SGAE Fundazioak eta Sitges Fundazioak izendatuko dute). Erakundea saiatuko da, ahal duen neurrian, epaimahaian izan daitezen Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialak mintzatzen dituzten profesionalak. **Ekitaldi publiko honetan jakinaraziko da sariaren epaimahaiaren behin betiko erabakia: Kataluniako Nazioarteko Zinema Fantastikoaren 59. Jaialdia**, 2026ko urriaren 8tik 18ra Sitgesen (Bartzelona) izango dena.

07 Saria ezingo da geratu eman gabe, eta epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Epaimahaiko kideen boto berdinketarik badago, lehendakariak kalitateko botoa erabil dezake.

08 Lehiaketa honek sari bakarra du: **hamar mila euro (10.000 €), zergak barne**. Obra irabazleak egile bat baino gehiago baditu, kopurua hainbanatu egingo da egilekideen artean. Zenbateko horiek indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen zergen menpe egongo dira.

09 Saritutako egileak edo egileek hitzematen dute saria esleitu ondotik sinatuko dituzten lagatze-kontratuetan esplizituki honako hauek zehaztuko direla egin beharreko film luzearen kopietan (bai euskarri zinematografikoan, bai bideografikoan, bai beste edozein euskarritan edo promoziorako materialetan): sariari aipamena egitea (**"II. Josefina Molina Saria, Film Luze Fantastikoetarako Emakumeen Egiletza Duten Gidoiena"**) eta SGAE Fundazioaren eta Sitges Fundazioaren logotipoak agertzea.

10 Saritutako testua jakinarazi ondoren, suntsitu egingo dira finalista moduan hautatuak izan ez diren lanak. Ez da inolako mezu-trukerik izango horien gainean.

11 Parte-hartzaileek, lehiaketan parte hartzearekin, osorik onartzen dituzte oinarri hauek, baita epaimahaiaren erabakiak ere.

12 Parte-hartzaileek SGAE Fundazioa eta Sitges Fundazioa salbuesten dituzte erantzukizun orotatik, baldin eta partaideetakoren batek plagiorik edota indarrean den lege-urraketarik egingo balu.

13 Erreklamaziorik edo gatazkarik badago, Madrilgo hiriburuko auzitegien edo Bartzelonako hiriburukoen jurisdikzioaren pean ezarriko dira bai parte hartzaileak eta bai erakundeak.

MATERIALA NORA BIDALI
iarmada@fundacionsgae.org

INFORMAZIOA
Interesdunek hemen egin ditzakete oinarri hauen gaineko kontsultak edo eskatu informazio gehiago:
informacion@fundacionsgae.org
iarmada@fundacionsgae.org

Tel. 91 503 68 00

www.fundacionsgae.org
www.sgae.es

sgae audiovisual

fundación sgae fundazioa

SITGES
FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINEMA FANTÀSTIC DE CATALUNYA

Josefina Molina

SARIA

FILM LUZE FANTASTIKOETARAKO
EMAKUMEEN EGILETZA DUTEN
GIDOIENA

IZENA EMATEKO ORRIA

Izena(k) .....
Abizenak .....
SGAEko bazkide zenbakia .....
Titulua .....
Helbidea .....
Posta kodea .....
Herria .....
Probintzia / Herrialdea .....
Telefonoa(k) .....
Helbide elek. .....

"II. Josefina Molina Saria, Film Luze Fantastikoetarako Emakumeen Egiletza Duten Gidoiena" izeneko lehiaketan aurkezten diren egileek

HAUXE ADIERAZTEN DU/DUTE:

1.- Bere/Beren borondatez aurkeztu duela/dituztela eskaera/eskaerak II. Josefina Molina Sarian parte hatzeko.

2.- Deialdiaren oinarriak irakurri dituela/dituztela eta onartzen duela/dutela haietan datorrena. Horrekin batera, curriculum vitaea eta nortasun agiria aurkezten dituela/dituztela.

3.- Badakiela/Badakitela "II. Josefina Molina Saria, Film Luze Fantastikoetarako Emakumeen Egiletza Duten Gidoiena" izeneko lehiaketan parte hartuta SGAEk tratatuko dituela beren datu pertsonalak administrazio-izapide guztiak egiteko, lehiaketan parte hartzeko eta epaimahaikoek irabazlea edo irabazleak hautatzeko.

Hori guztia dela eta, **BERARIAZ BAIMENTZEN DU/DUTE**:

SGAE FUNDAZIOAK idazki honetan eta curriculum vitaean datozen datu pertsonalak tratatzea zertarako eta "II. Josefina Molina Saria, Film Luze Fantastikoetarako Emakumeen Egiletza Duten Gidoiena" izeneko lehiaketan parte hartzeko, administrazio izaera duten kudeaketa guztiak egiteko eta epaimahaikoek irabazlea edo irabazleak hautatzeko.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (pertsona fisikoak babesteko datu pertsonalen tratamenduari buruzkoak) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta xedapen osagarriek arautzen dutenarekin bat etorriz, badaki/badakite eskubidea duela/dutela datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko, eramateko eta erabaki indibidual automatizatuen xede ez izateko SGAE FUNDAZIOAren aurrean. Eskubide horiek baliatzeko, idatzi bat bidali behar da SGAE Fundazioaren zerbitzu juridikoetara, honako datu hauek adierazita: izen-abizenak, NANaren fotokopia, helbidea, baliatutako eskubidea eta idatziaren motiboa. Helbidea: Bárbara de Braganza kalea, 7, 28004 Madril (Espainia).

Eskatzailearen/eskatzaileen sinadura(k)

.....andrea .....andrea